

RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK

ANIMALIEN ELIKADURA


2015eko LEHENENGO LAUHILEKOA

Jakinarazpenak sailkatzea
Jakinarazpenen jatorria
Jakinarazitako arriskuen tipologia
Tartean dauden lehengai eta pentsuak
Laburpen-taula

JAKINARAZPENAK SAILKATZEA

2015eko lehenengo lauhileko honetan, animalien elikagaiei buruzko **66 jakinarazpen** egin dira. Horietatik **8 alertak izan dira, 45 informazio-jakinarazpenak** eta **13 mugan egin diren ukapenak**

Egindako kontrol-motari dagokionez, **2 jakinarazpen Mugako Ikuskapen Postuek (MIP)** igorri dituzte, **30** pentsuen ekoizpen-kateko zenbait arlotan egindako **Kontrol Ofizialek**, **13 autokontroletan atzeman dira** eta industriak berak igorri ditu. Azkenik, **kasu bat bezero baten erreklamazioak** eragin du.



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Epe horretan jasotako **66 jakinarazpen horietatik 25** (% 38) **beste herrialde batekoak** izan dira. Jakinarazpen gehien herrialde hauek egin dituzte: 6 Mauritaniak eta 5 Brasilek.

Mauritanian egindako jakinarazpenak, batez ere, **arrain-irinean mikrobiologia ezegokia** egotearen ondorio dira.


Brasili dagokionez, berriz, jakinarazpenak, batik bat, honako hauekin daude lotuta: **B1 aflatoxina txorientzako kakahueteetan eta salmonella txakurrentzako mastekagarrietan**.

Jakinarazpen gehien egin dituen herrialdea **Belgika** izan da: guztira **12 egin ditu**. Belgikaren ondoren, Alemaniak (11) eta Espainiak (8) egin dituzte gehien.

JAKINARAZITAKO ARRISKUEN TIPOLOGIA

Denbora-tarte horretan atzemandako arrisku gehienak mikrobiologikoak izan dira (% 67). **PAEek jakinarazpenen % 11** eragin dituzte eta **mikotoxinek % 3**. **Beste arrisku batzuek**, berriz, (Ambrosia spp-ren hazien presentzia, biozidak, trazabilitate eza, etab.) % 17 eragin dituzte.

Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, salmonellak eragin ditu jakinarazpen gehienak (44 jakinarazpenetatik 40). Salmonella antzeman den lehengaien artean arrain-irinak, animalien proteina prozesatuak eta txakurrentzako mastekagarriak nabarmendu behar dira.



TARTEAN DAUDEN LEHENGAI ETA PENTSUAK

Produktuka, **lehengai** dagozkie jasotako jakinarazpenen % 61, **laguntza-animalientzako pentsuei % 26**, **loditzeko animalientzako pentsu konposatu eta osagarri** % 12 eta **gehigarri eta aurre-nahasketei % 1**.

Jakinazpenetan zerikusia izan duten produktuei dagokienez, honako lehengai hauek nabarmendu dira hurrenkera honetan: **arrain-irina (9)**, **txakurrentzako mastekagarriak (9)** eta **animalia-jatorriko proteina prozesatuak (7)**.

Halaber, nabarmentzekoak dira **akuikulturarako pentsuetan animalia-jatorriko proteina baimendu gabeen presentziak eragindako jakinarazpenak (7)**.



AURREKO LAUHILEKOAREKIN ALDERATZEA

- 2015eko lehenengo lauhilekoan 66 jakinarazpen egin dira, eta 2014ko hirugarren lauhilekoan, berriz, 96 jakinarazpen.
- Azpimarratzekoa da muga egindako ukapenen kopurua murriztu egin dela (34tik 13ra).
- Eginiko kontrol motari dagokionez, aipatzekoa da jatorria **merkatuko kontrol ofizialetan** duten jakinarazpenen kopuruaren gorakada (% 30etik % 43ra). Halaber, murriztu egin da autokontroletako jakinarazpenen kopurua (% 25etik % 20ra) eta Mugako Portuek atzemandakoena (% 43tik % 33ra).
- Lehenengo lauhileko honetan, jakinarazpenen % 38ren jatorria hirugarren herrialde batean egon da (2014ko hirugarren lauhilekoan % 45 izan zen). **Jakinarazpen gehienetan**, tartean egon den produktua **Europar Batasuneko herrialdeetako** izan da.
- Jakinarazitako arriskuen tipologiari dagokionez, nabarmentzekoa da **akuikulturarako pentsuetan animalia-jatorriko proteina baimendu gabeen presentziak** eragindako jakinarazpenen **igoera** (7). Beste ala batetik aipatzekoa da 2015eko lehenengo lauhilekoan, ez dela jakinarazpenik egin pentsuetarako lehengaietan **genetikoki eraldatutako material baimendu gabeen presentzia dela eta**.

Eranskina. RASFFren bidez 2015eko 1. lauhilekoan animalien elikadurari buruz egin diren informazio-alerten eta jakinarazpenen laburpen-
taula.

ARRISKUA	MOTA	Zk.	PRODUKTUAK	Zk.	ESPEZIEA	
Mikrobiologia	Salmonella	35	Soja-irina	1	<i>Salmonella Senftenberg</i>	
			Soja-taloa	1	<i>Salmonella Nyborg</i>	
				1	<i>Salmonella spp.</i>	
			Soja-hazia	1	<i>Salmonella Agona</i>	
			Txakurrentzako mastekagarriak	3	<i>Salmonella spp.</i>	
				1	<i>Salmonella Senftenberg</i>	
				1	<i>Salmonella Kentuck</i>	
			Koltza-irina	1	<i>Salmonella Agona</i>	
				1	<i>Salmonella Senftenberg</i>	
			Koltza-taloa	1	<i>Salmonella Lexington</i>	
				Eraldatutako animalia-proteina	2	<i>Salmonella Rissen</i>
					2	<i>Salmonella Lexington</i>
			2		<i>Salmonella Infantis</i>	
			Haragi-irina	2	<i>Salmonella spp.</i>	
			Hegazti-irina	2	<i>Salmonella spp.</i>	
				1	<i>Salmonella Blockey</i>	
			Ekilore-irina	1	<i>Salmonella Tennessee</i>	
Ekilore-taloa	1	<i>Salmonella Senftenberg</i>				
Arroz-irina	1	<i>Salmonella havana</i>				
Txakurrentzako pentsua	1	<i>Salmonella spp.</i>				
Presioko palmiste- taloa	1	<i>Salmonella emek</i>				
Astalikaredu-haziak	1	<i>Salmonella give</i>				
Arrain-irina	6	<i>Salmonella spp.</i>				

ARRISKUA	MOTA	Zk.	PRODUKTUAK	Zk.	ESPEZIEA
Mikrobiologia	Salmonella + enterobacteriaceae	5	Hegazti-irina	1	<i>Salmonella Lexington</i> + <i>enterobacteriaceae</i>
			Luma-irina	1	<i>Salmonella Senftenberg</i> + <i>enterobacteriaceae</i>
			Txakurrentzako mastekagarriak	3	<i>Salmonella spp.</i> + <i>enterobacteriaceae</i>
	Enterobacteriaceae	4	Arrain-irina	2	
			Animalien proteina prozesatua	1	
		Txakurrentzako mastekagarriak	1		

ARRISKUA	MOTA	Zk.	PRODUKTUAK	Zk.
Mikotoxinak	B1 Aflatoxina	2	Kakahueteak	6
Dioxinak	Dioxinak	1	Zink-oxidoa	1
Metal astunak	Artsenikoa	1	Pentsuetarako gehigarria	1
PAE	PATak	7	Akuikulturarako pentsu konposatuak	7
Beste batzuk	Ambrosia spp.-ren presentzia	4	Hazien nahasketa	2
			Txorientzako pentsua	1
			Ekilore-haziak	1
	D bitaminaren kopuru handia	1	Kumeentzako esnea	1
	Clorprofam (herbizida)	1	Garia	1
	Metalen presentzia	1	Erremolatxa mamia	1
	Trazabilitate eza	1	Arrain-irina	1
	Metalaxil (fungizida)	1	Ekilore-taloa	1
Lizunen presentzia	1	Kakahueteak	1	
Zink-muga ez onargarriak	1	Txerrikumeentzako pentsua	1	